demuporsa

HAUTAKETA-PROZESUAREN OINARRIAK, PORTUGALETEKO UDAL KIROL SOZIETATEAN LANPOSTU HAUEK KONTRATATZEKO:

- **AHOLKULARI JURIDIKOA**
- **INSTALAZIOETAKO ARDURADUNA**

LEHENBIZIKOA. HAUTAKETA-PROZESUAREN XEDEA.

Hautaketa-prozesu honen xedea da AHOLKULARI JURIDIKO bat eta INSTALAZIOEN ARDURADUN bat kontratatzea DEMUPORSA – Portugaleteko Udal Kirol Sozietatea SArako (aurrerantzean, DEMUPORSA). Udal-sozietate horren xedea da kirol-jarduera sustatzea eta garatzea Portugaleteko biztanleen artean.

Deialdi honen xede diren lanpostuak sozietatearen 2024ko ekitaldiko Lan Eskaintza Publikoaren esparruan daude sartuta.

Lanpostuen deskribapen nagusia 1. ERANSKINEAN dago jasota.

Ordainsari-maila, honela banakatuta:

- Aholkulari juridikoa: **58.118,95 € gordin urtean**.
- Instalazioetako arduraduna: **58.118,95 € gordin urtean.**

Kontratazioari dagokionez, lanaldi osoko kontratu mugagabea egingo da.

Deialdia publikoa eta irekia da, eta kontuan hartzekoak dira dokumentu honetan jasotako oinarriak, baita berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioak ere.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK ETA BALDINTZAK.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek parte hartu ahal izango dute hautaketa-prozesuan:

A) Europar Batasuneko estatu kide bateko edo Espainiako estatuarekin lan-hitzarmena sinatuta daukaten herrialdeetako nazionalitatea izatea, edo lan- eta egoitza-baimena izatea. Halaber, Europar Batasuneko estatu kideetako herritarren ezkontideek ere parte hartu ahal izango dute, nazionalitatea edozein dela ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude; halaber, parte hartu ahal izango dute herritarron ondorengoek eta haien ezkontidearen ondorengoek ere, baldin eta zuzenbidez bananduta ez badaude, hogeita bat urtetik beherakoak badira, edo, adin horretatik gorakoak izanik, mendekotasuna badute. Era berean, parte hartu ahal izango dute Europar Batasunak izenpetu eta Espainiak berretsitako Nazioarteko Tratatuen aplikazio-eremuan dauden pertsonek ere, horietan aplikatzekoa bada langileen joan-etorri askea.

B) 16 urte beteta edukitzea parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

C) Eginkizunak betetzeko gaitasun funtzionala izatea: gaixotasunik ez edukitzea eta ez izatea dagozkion eginkizunak betetzearekin bateraezina den muga fisiko edo psikikorik.

D) **Prestakuntza:**

- **Aholkulari juridikoa**: Zuzenbideko unibertsitate-titulua edukitzea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea.

- **Instalazioetako arduraduna**: Ingeniaritzako unibertsitate-titulua edukitzea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordainduta edukitzea.

E) **Lan-esperientzia**: Erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko da, parte hartzeko eskabide-orriaren bidez, eta, horrekin batera, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako Lan Bizitzaren Txostena aurkeztu beharko da, edo kontratuaren/kontratuen amaiera-data eta iraupen osoa egiaztatzen duen beste agiriren bat. Horrekin batera, lan-kontratuen kopia ere aurkeztu ahal izango da, betiere, lan hori egitetik ondoriozta badaiteke edo beste enpresa-ziurtagiri batzuk, lanbide-kategoria eta betetako eginkizunak zehazten dituztenak.

- **Aholkulari juridikoa**: Gutxienez 5 urteko esperientzia antzeko eginkizunak betetzen, bai edukiari dagokionez, bai erantzukizun-mailari dagokionez.

- **Instalazioetako arduraduna**: Instalazioen mantentze-lanetan gutxienez 5 urteko esperientzia izatea, antzeko eginkizunak betetzen edukiari zein erantzukizunari dagokienez.

Izangaiek parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean beteta eduki beharko dituzte baldintzak, eta betetzen jarraitu beharko dute harik eta lan-kontratua sinatu arte, C) atalean adierazitakoa izan ezik, zeina zerbitzu medikoak egiaztatu beharko baitu kontratatu aurreko momentuan.

HIRUGARRENA. PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK AURKEZTEA.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea 20 egun naturalekoa da, deialdi honen iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko prozesua:

a) Hautaketa-prozesuan parte hartu nahi duten pertsonek **apropos prestaturiko parte hartzeko eskabide-orria bete beharko dute, eta adierazi beharko dute betetzen dituztela bigarren oinarrian eskatutako baldintza guztiak**, betiere parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentzia gisa harturik.

Hautaketa-prozesuan zehar, eskatuko da egiazta daitezela aurretiazko betekizunak bete izanaren egiaztagiriak, zeinak hautaketa-prozesuan parte hartzeko bigarren oinarrian eskatzen baitira, lan-esperientziari dagokiona izan ezik, hori parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztu beharko baita.

Inprimakian merezimendu gisa baloratu beharreko alderdiei buruzko datuak jaso beharko dira; hala ere, horiek egiaztatzeko, epe bat irekiko da hautaketa-prozesuan zehar, prozesu horretan segitzen duten hautagaiek inprimakian alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa aurkez dezaten.

b) **Parte hartzeko eskabidearekin batera, curriculum vitae eguneratua erantsiko da, eta eskatutako lan-esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa, bigarren baldintzaren E) atalaren arabera.**

Izangairen batek hautaketa-prozesuan kontuan hartu beharreko desgaitasunen bat badu, inprimakian eskatu beharko ditu gainerako parte-hartzaileen baldintza berberetan ariketak egiteko behar dituen denbora eta/edo bitartekoak, betiere horrekin ez bada hutsaltzen probaren edukia eta ez bazaio egiten murrizketarik edo kalterik lanpostuetarako eskatutako gaitasun-mailari. Hautaketa-organoari dagokio balioestea bidezkoa den ala ez eskatutako egokitzapenak ematea. Kasuak hala eskatzen badu, alegatutako desgaitasun-maila aitortzen duen ziurtagiria erantsiko zaio inprimakiari.

Parte hartzeko eskabideak aurkezteko lekua edo bitartekoak:

- Posta elektronikoz, helbide honetara: demuporsa@demuporsa.com.

- Aurrez aurre, helbide honetan: Demuporsaren bulegoak, Pando Aisia kiroldegiko 1. solairua, Miguel de Unamuno kalea 43, 48920 (Portugalete). Aurrez aurreko aurkezpenerako ordutegia 9:00etatik 15:00etara da, astelehenetik ostiralera bitartean.

- Posta-bulegoetan, helbide honetara bidalitako ziurtagiriaren bidez: Demuporsa, Pando Aisia kiroldegia, Miguel de Unamuno kalea 43, 48920 (Portugalete).

LAUGARRENA. IZANGAIAK ONARTZEA.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, berrikusi egingo dira, hautagaitza aurkeztu duten pertsonek bigarren oinarrian eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten ala ez egiaztatzeko.

DEMUPORSAren webgunean argitaratuko da (www.portukirolak.com) onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda, baztertzeko arrazoia adierazita, eta 3 egun balioduneko epea zabalduko da, argitaratzen denetik zenbatzen hasita, erreklamazioak aurkezteko eta akatsak zuzentzeko.

Erreklamazioak bi modutan aurkez daitezke: posta elektronikoz, edo aurrez aurre DEMUPORSAren bulegoetan (Pando Aisia kiroldegia, Miguel de Unamuno kalea 43, 48920, Portugalete).

Aurkeztutako erreklamazioak eta zuzenketa eskaerak aztertu ondoren, DEMUPORSAren webgunean (www.portukirolak.com) argitaratuko da onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

BOSGARRENA. HAUTAKETA-PROZESUA.

5.1. Hautaketa-organo bat eratuko da hautaketa-prozesuaren xede den plaza bakoitzerako, helburu gisa harturik hautaketa-prozesua kudeatzea eta, bereziki, aurkeztutako eskabideak balioestea, bai eta probak eta merezimenduak kalifikatzea ere hautaketa-prozesuaren faseetan.

Administrazio Kontseiluak eskuordetuta, DEMUPORSAko Administrazio Kontseiluko lehendakariak izendatuko ditu Hautaketa Organoko kideak. Izendapena DEMUPORSAren webgunean argitaratuko da (www.portukirolak.com).

Izendapena inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioen arabera egingo da.

Hautaketa Organoa kide hauek osatuko dute: lehendakari gisa jardungo duen pertsona batek, bi batzordekidek eta idazkari ez-kide gisa jardungo duen pertsona batek, zein bere ordezkoekin.

Epaimahaia ezingo da eratu eta ezingo da aritu ez badira bertaratzen epaimahaia osatzen duten hiru pertsonak eta idazkaria, eta lanpostu bakoitzeko titularrak edo haien ordezkoak bertaratu ahal izango dira.

Epaimahaiaren osaerak orekatua izan behar du emakumeen eta gizonen presentziari dagokionez, nola eta ez den behar bezala justifikatzen ez dela egokia.

Osaera teknikoa izango du nagusiki, eta espezialitate-printzipioak zehaztuko du. Beraz, kide guztiek deialdiko lanpostuetara sartzeko eskatzen den maila akademiko bereko edo handiagoko titulazioa izan beharko dute.

Hautaketa Organoak autonomia funtzional osoz jokatuko du, eta zaindu egingo du hautaketa-prozesuaren objektibotasuna. Halaber, ahalmena izango du hautaketa-prozesuan zehar sortzen diren zalantzak aztertzeko eta oinarri hauetan xedatutakoaren arabera eta modu ordenatuan garatzeko beharrezko erabakiak proposatzeko; hala, hartu beharreko irizpideak proposatuko ditu haietan aurreikusi gabeko kasurik izanez gero.

Hautaketa Organoak dagozkion neurriak hartuko ditu idatzizko ariketen edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, bai eta ariketa horietan parte hartzen duten pertsonen nortasuna ezagutu gabe zuzenduko direla bermatzeko ere. Era berean, fase bakoitzeko emaitzak baliozkotuko ditu, eta sortzen diren gorabehera guztiak ebatziko.

Hautaketa-organoak bere lanetan aholkulari edo enpresa espezializatuak sartzea xedatu ahal izango du, egoki iritzitako kudeaketa eta probak egiteko, hala nola hautagaitzak jasotzea, probak diseinatzea, probak egikaritzea eta baloratzea kasu batzuetan eta abar. Bereziki, hautaketa-organoak OTEIC Taldearen laguntza izango du —hau da, hautaketa-prozesu horietan laguntzeko kontratatutako hautaketa-enpresarena—.

5.2. Hautaketa-prozesuak fase hauek izango ditu, eta, horretarako, hautagai bakoitza deituko da haietara. Proba bakoitzerako deialdia DEMUPORSAren webgunean argitaratuko da (www.portukirolak.com). Hauek izango dira azterketa-eremuak:

1. FASEA: Ezagutzaren analisia.

Bete beharreko lanpostuaren berariazko eginkizunekin eta ezagutzekin zerikusia duen idatzizko ezagutza-proba bat egitea, dokumentu honen 1. eranskinean zehaztuta bezala.

Gehienez 40 puntu emango dira, eta gutxienez 20 lortu beharko dira gainditzeko.

2. FASEA: Gaitasun-analisia:

Zenbait proba psikotekniko egingo dira, deitutako lanpostuetarako gaitasun intelektual garrantzitsu hauek baloratzeko:

Aholkulari juridikoa: Arrazoitzeko gaitasuna, antolatzeko gaitasuna, arreta-gaitasuna eta xehetasunetara bideratzekoa.

Instalazioetako arduraduna: Arrazoitzeko gaitasuna, antolatzeko gaitasuna, arreta-gaitasuna eta xehetasunetara bideratzekoa, gaitasun espaziala.

Gehienez 10 puntu emango dira, eta gutxienez 5 lortu beharko dira gainditzeko.

3. FASEA: Azterketa pertsonala.

Fase honetan sartuko dira aurreko bi faseetan gutxieneko nota lortu duten pertsonak, edo, zenbaki hori gainditu ondotik, hautaketa-prozesu bakoitzean 1. fasean eta 2. fasean puntuazio handiena lortu duten 20 izangaiak. Berdinketa gertatuz gero, zabaldu egingo da zenbaki hori, prozesu bakoitzean puntuazio bera dutenak sartu arte.

Elkarrizketa bat eta nortasun-test bat egingo dira, eta helburua izango da balioestea ea izangaiak egokiak diren pertsonalki eta gaitasunei dagokienez lanpostu bakoitzaren profilaren ezaugarrietarako.

Lanpostuak eskatzen duen intentsitatea kontuan hartuta, dimentsio eta gaitasun hauek baloratuko dira:

- Ingurunea: ikuspegia eta aurrea hartzea, bezeroarenganako orientazioa, irekitasuna, identifikazioa eta enpresarekiko konpromisoa.

- Eginkizunak garatzeko: ekimena, emaitzetarako orientazioa, alternatiba zehatz eta berritzaileak aztertzeko eta proposatzeko gaitasuna, ebazteko gaitasuna, erabakiak hartzea.
- Pertsonen artekoa: komunikatzeko eta entzuteko gaitasuna, harremanak ezartzea, talde-lana.
- Pertsonaren barnekoa: autokontrola, konfiantza, segurtasuna, dinamismoa, zoritxarrekiko erresistentzia.
- Kudeaketa: plangintza eta antolaketa, lidergoa, pertsonen kudeaketa.

Gehienez 20 puntu emango dira.

4. FASEA: Merezimenduen balorazioa.

Alderdi hauek balioetsiko dira: hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen den titulazioa osatzen duen prestakuntza, lanpostuarekin lotutako lanbide-esperientzia eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza gisa eskatzen denaren osagarria, eta euskararen ezagutza.

Balioespena egiteko, baremo hartuko da kontuan, eta Hautaketa Organoari dagokio prestakuntza-edukien nolakotasuna baloratzea, bai eta lanbide-esperientzia ere, lanpostu horretarako izan dezaketen onuraren arabera:

- Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen den titulazioaz gainera, dagokion lanpostuaren xedearekin zerikusia duen prestakuntza osagarria. Gehienezko balorazioa 6 puntu izango da.

    - 300 ordutik gorako masterrak eta graduondoko ikastaroak: 3 puntu.
    - 100 ordu edo gehiagoko prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak edo tailerrak: puntu 1.
    - 100 ordu baino gutxiagoko prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak edo tailerrak: 0,01 puntu orduko

    Dagozkion titulazioak eta/edo ziurtagiriak aurkeztuz egiaztatuko da.

    Iraupena adierazten ez duten ikastaroak, jardunaldiak, tailerrak eta/edo mintegiak gutxieneko puntuazioarekin (0,01) puntuatuko dira.

    Ikastaroak, jardunaldiak, tailerrak eta/edo mintegiak, egun-kopurua bakarrik zehaztuta ageri badira, egunean sei ordurekin zenbatuko dira.

    Ikastaro, jardunaldi, tailer eta/edo mintegien ziurtagirietan kreditu-kopurua bakarrik agertzen bada, baliokidetasun hau egingo da puntuazioa esleitzeko: Kredituen Europako Sistemaren (ECTS) kreditu bat: 25 ordu. Etengabeko Prestakuntzako Batzordearen (CFC) kreditu bat: 10 ordu.

    Prestakuntza eman zuen erakundeak horretarako emandako diploma, titulu edo egiaztagirien kopiaren bidez egiaztatuko da, iraupena (ordu- edota egun-kopurua) edo kreditu-kopurua adierazita.

    Ez da balioetsiko lanpostuaren berezko eginkizunekin zerikusirik ez duen prestakuntza.

- Lanpostuarekin lotutako lanbide-esperientzia eta hautaketa-prozesuan parte hartzeko baldintza gisa eskatzen denaren osagarria. Gehienezko balorazioa 20 puntu izango da.

  Aukeratutako lanpostuaren antzeko eginkizunak betetzen 5 urtetik gorako esperientzia izanez gero, bai edukiari dagokionez, bai erantzukizunari loturik, 0,20 puntu emango dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen den 5 urtetik gorako hilabete oso bakoitzeko.

  Egiaztatzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandako Lan Bizitzaren Txostena aurkeztu beharko da, edo kontratuaren/kontratuen amaiera-data eta iraupen osoa egiaztatzen duen beste agiriren bat. Aurkeztu ahal izango da, orobat, lan-kontratua, baldin eta haren edukitik ondoriozta badaiteke egindako lana; halaber, beste enpresa-ziurtagiri batzuk ere aurkeztu ahal izango dira, beteriko lanbide-kategoria eta eginkizunak zehazten dituztenak.

  Edukiarekin eta/edo erantzukizun-mailarekin zerikusirik ez duen esperientzia profesionala ez da baloratuko.

- Euskara jakitea. Gehienez 12,5 puntu emango dira.

  - B1 maila: 5,5 puntu
  - B2 maila: 8,5 puntu
  - C1 maila: 12 puntu
  - C2 maila: 12,5 puntu

  Euskara-ezagutzak balioesteko, kontuan hartuko dira hizkuntza-eskola ofizialek emandako titulu eta ziurtagiriak, hizkuntza-eskakizun baliokideen ziurtagiriak, edo beste erakunde batzuek emandako titulu homologatuak.

Faseen eta puntuazioen laburpena:

FASEA	PUNTUAK GEHIENEZ	GUTXIENEKO PUNTUAZIO-IRIZPIDEAK	
1. EZAGUTZA-AZTERKETA	40	**20**	**Ebaketa-irizpidea:** 20 adinekoen artean F1+F2 metatutako puntuazioa
2. GAITASUN-ANALISIA	10	**5**	
3. AZTERKETA PERTSONALA	20	---	
4. MEREZIMENDUEN BALORAZIOA	38,5	---	
GUZTIRA (1+2+3+4)	**108,5**	---	

Hautaketa Organoak zehaztuko du faseen eta proben hurrenkera, bai eta egun berean bat baino gehiago egiteko aukera ere, hautaketa-prozesua behar bezala gara dadin.

Izangaiei deialdi bakarra egingo zaie proba bakoitzerako, eta dei egindako unean pertsona bat ez bada aurkezten probetako edozeinetara, automatikoki galdu egingo du bertan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea. Ondorioz, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira, Hautaketa Organoak behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Dibertsitate funtzionala izanik, egokitzapen berezia behar duten pertsonek probak egin ahal izateko, beharrezko egokitzapenak egingo dira. Hala, bermatuko da gainerako parte-hartzaileen aukera berberak dituztela, betiere horrekin ez bada hutsaltzen probaren edukia eta ez bazaio egiten murrizketarik edo kalterik lanpostuetarako eskatutako gaitasun-mailari.

Fase bakoitzean lortutako puntuazioen behin-behineko zerrendak DEMUPORSAren webgunean argitaratuko dira (www.portukirolak.com).

Interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, kasu bakoitzean horretarako ezartzen diren epeen barruan eta prozeduraren arabera. Epe horiek gutxienez hiru egun baliodun izango dira, behin-behineko puntuazioak argitaratzen diren egunetik zenbatzen hasita. Alegazio-aldiak amaitu eta horiek ebatzi ondoren, behin betikoak izango dira erabaki horiek.

SEIGARRENA. LANERATZEA.

Hautaketa-prozesuko faktoreen analisian lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du behin betiko sailkapen-hurrenkera, eta halaxe zehaztuko da lehentasun-ordena.

Hautaketa Organoak kontratazio-proposamena egingo dio DEMUPORSAren Administrazio Kontseiluko lehendakariari, eta hark, Administrazio Kontseiluak eskuordetuta, dagokion erabakia hartuko du.

Hautatutako hautagaia sozietatearen antolamendu-beharrizan eraginkorrekin bat etorriz hasiko da lanean, eta sozietatearen araudiaren arabera arautuko. Aldez aurretik egiaztatu beharko dira hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintzak, bai eta lortutako balorazioa zehazten dutenak ere, nola eta ez diren egiaztatu aurretik, prozesuaren aurreko faseren batean. Xede horrekin, azterketa medikoa egingo zaie izangaiei, funtzioa behar bezala betetzeko duten gaitasun medikoa zehazteko.

Horretarako, DEMUPORSAk deialdia egingo dio hautatutako pertsonari, dagokion lan-kontratua sinatzeko. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, behar bezala deitutako pertsona ez bada agertzen DEMUPORSAren egoitzan adierazitako ordu eta egunean, galdu egingo ditu deialditik eratorritako eskubide guztiak, eta Hautaketa Organoak hurrengo hautagaiaren aldeko kontratazio-proposamena egingo du, puntuazio-ordenari jarraikiz.

Kontratuak 6 hilabeteko probaldia aurreikusten du, lan-legedian aurreikusitako baldintzetan.

ZAZPIGARRENA. HAUTAGAIEKIN KOMUNIKATZEA.

Izangaiek DEMUPORSAren webgunean (www.portukirolak.com) kontsultatu beharko dute hautaketa-prozesuari buruzko informazioa, komunikazio eta jakinarazpenetarako. Nolanahi ere, salbuespenez, pertsonalki jarri ahal izango dira harremanetan, hautaketa-prozesuaren beharrak direla eta, parte hartzeko eskabidean adierazitako harremanetarako bitartekoen bidez.

ZORTZIGARRENA. DATUEN TRATAMENDUA.

Izangaiek beren eskabideetan emandako datu pertsonalak eta oinarri hauetan araututako prozesuan zehar Portugaleteko Udal Kirol Sozietatea SAri ematen dizkiotenak tratamenduaren arduradun gisa tratatuko ditu erakunde horrek, eta tratamenduaren oinarria izango da hautaketa-prozesuko parte-hartzea kudeatzea, bai eta izangaiak kontratu aurreko neurriak hartzeko egindako eskaera ere (enplegu-eskaera).

Deialdi honen xede den hautaketa-prozesua publizitate-printzipioaren eraginpean dagoen heinean, legezko eginbeharrak betez, Portugaleteko Udal Kirol Sozietatea SAk DEMUPORSAren webgunean (www.portukirolak.com) argitaratuko ditu, bai oinarri hauek, bai hautaketa-prozesuaren emaitzak, bai argitaratu beharreko beste xehetasun batzuk ere. Interesdunen nortasunari dagokionez, eskabide bakoitzari esleituko zaion identifikazio-kode pertsonalaren bidez adieraziko dira.

Datuak babestearen arloan aplikagarria den araudian ezarritakoa betez, Portugaleteko Udal Kirol Sozietateak Datuak Babesteko Ordezkari bat izendatu du, eta hura arduratuko da erakundearen pribatutasuna kudeatzeaz eta kontrolatzeaz. Izangaiak harekin harremanetan jarri ahal izango dira, demuporsa@demuporsa.com helbide elektronikoaren bidez.

Portugaleteko Udal Kirol Sozietatea SAk hautaketa-prozesua behar bezala gauzatzeko behar den denboran gordeko ditu hautagaiei buruzko datu pertsonalak, eta, beharrezkoa denean, erakundeak legezko betebeharrak betetzeko beharrezkoa den gainerako denbora guztian.

Aurretik adierazitakoaren arabera beharrezkoak diren argitalpenak alde batera utzita, eta legez eska daitezkeen kasuetan izan ezik, OTEIC Taldeari jakinaraziko zaizkio hautagaien datu pertsonalak, baldin eta jakinarazpen hori beharrezkoa bada hautaketa-prozesua kudeatzeko. Ez da aurreikusten datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egitea.

Izangaiek eskubidea izango dute (i) beren datu pertsonaletarako sarbidea eskatzeko, datu horiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, datu horien eramangarritasuna izateko edo datuok tratatzeari aurka egiteko, eta, kasu horretan, idatzizko eskaera bidali behar da demuporsa@demuporsa.com helbide elektronikora, eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan edo beste edozein kontrol-agintaritza eskudunen aurrean, batez ere ez badira geratu konforme beren eskubideak baliatzeari dagokionez.

20187771G IKER VILLALBA (R: A48068134)

Firmado digitalmente por 20187771G IKER VILLALBA (R: A48068134)
Fecha: 2024.10.30 12:35:55 +01'00'

Portugalete, 2024ko urriaren 30a

1. ERANSKINA: LANPOSTU BAKOITZAREN DESKRIBAPEN NAGUSIA

AHOLKULARI JURIDIKOA

Funtzio nagusiak:

- Administrazio Kontseiluko idazkari-kargua betetzea. Deialdiak idaztea eta bidaltzea; Kontseiluaren eta Kontratazio Mahaiaren bileretara joatea; aktak, erabakiak eta ziurtagiriak idaztea; notariotza- eta erregistro-izapideak egitea; eta sozietate-liburuak eramatea.
- Arlo guztiei aholkularitza orokorra eta diziplina anitzekoa ematea. Era guztietako akordioak, lankidetza-hitzarmenak eta kontratuak idaztea, berrikustea eta negoziatzea (merkataritzakoak, zibilak, giza baliabideetakoak eta administraziokoak).
- Kontratazio publikoa: Sektore Publikoko Kontratuen Legea betetzen laguntzea; euskarri-dokumentuak idaztea, baldintza-agiriak eta lizitazio-iragarkiak egitea eta argitaratzea; kontratuak prestatzea eta idaztea; kontratua betearazteko aholkularitza; kontratazio-erregistroaren kudeaketa; erosketa publikoaren alboko alderdiak ezartzea (erosketa publiko berritzailea, erosketa publiko berdea). Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekiko eta auditoreekiko harremanetan laguntzea.
- Dirulaguntzak. Laguntza-programen oinarriak eta laguntzak kudeatzeko prozesuan erabilitako dokumentuak (ebazpenak, idazkiak, errekerimenduak) idazteko, egokitzeko eta berrikusteko laguntza eskaintzea.
- Sozietatearen jardueran aplikatzekoa den sozietate, administrazio eta/edo giza baliabideetako araudi berriari buruzko txostenak, azterlanak eta analisiak egitea.
- Aurrekontuei buruzko aholkularitza eta kontrola, erakunde honen izaerari buruzko zerga- eta kontabilitate-araudia betetzea, bai eta lege- eta merkataritza-alorrekoa ere.
- Parte-hartze aktiboa izatea datuak babesteko politika garatzen, ezartzen eta haren jarraipena egiten, baita gardentasunaren, administrazio elektronikoaren, informatika arloaren eta abarren gainean ere.
- Halaber, lege-aholkularitza ematea erakunde honi esleitzen zaizkion gai guztietan.
- Sozietatearen abokatu-ordezkaritza.
- Aurrekoak osatzen dituzten eta lanpostuarekin bat datozen gainerako eginkizunak.

Ezagutza espezifikoak:

Merkataritza-zuzenbidea:

- 1/2020 Legegintzako Dekretua, uztailaren 2koa, Kapital Sozietateen Legearen testu bategina onesten duena.
- Merkataritza Erregistroaren Erregelamendua, 1784/1996 Errege Dekretuaren bidez onetsia: II. titulua: enpresaburuen inskripzioa eta haien egintzak.

Administrazio-zuzenbidea:

- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- Euskal Herriko Autonomia Estatutua.

Zuzenbide zibila:

- Kode Zibila, II. liburua
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.
- Portugaleteko Udalaren Kirol Sozietatea SAren zerbitzu erregelamendua (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2024ko urtarrilaren 11koa).

Gizarte eta Lan Zuzenbidea:

- Langileen Estatutua: Lan-kontratua.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.
- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa

Kontratazio publikoa:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena.

Dirulaguntzak:

- 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, dirulaguntzen araubidea arautzen duena.

demuporsa

INSTALAZIOETAKO ARDURADUNA

Funtzio nagusiak:

- Sozietatearen kargurako kirol-instalazioen udal-sarea mantentzeko politika zehaztea eta planifikatzea, eta ziurtatzea behar bezala funtzionatzen duela, planifikatu gabeko geldialdirik gabe.
- Sozietatearen mantentze-lanetako eta garbiketako langileak zuzentzea, kudeatzea eta motibatzea.
- Mantentze- eta garbiketa-zerbitzua eskaintzeko kontratuen egikaritzea eta betetzea gainbegiratzea.
- Eraikinen eta instalazioen egoera diagnostikatzea eta berritzeko/inbertitzeko beharrak planifikatzea.
- Mantentze-lanetako aurrekontua eta erosketak kudeatzea.
- Kontratazio publikoko espedienteetan irizpide teknikoak definitzea.
- Erakundearen prebentzio-jarduera planifikatzea eta hedatzea, baita enpresa-jardueren koordinazioa ere.
- Instalazioen mantentze-lanak eta segurtasun-araudiak betetzen direla gainbegiratzea.
- Eraikinen kudeaketa energetikoa.
- Jarraipen teknikoa egitea sozietateak sustatutako instalazioen inbertsioen diseinuan eta egikaritzean.
- Instalazioetan sortzen diren gorabeherak konpontzea eta larrialdiei erantzutea.
- Aurrekoak osatzen dituzten eta lanpostuarekin bat datozen gainerako eginkizunak.

Ezagutza espezifikoak:

Kirol-instalazioen eta igerilekuen mantentze-lanak:

- 32/2003 Dekretua, otsailaren 18koa, otsailaren 18koa, erabilera kolektiboko igerilekuen araudi sanitarioa onartzeari buruzkoa (pdf, 270 KB)
- 742/2013 Errege Dekretua, irailaren 27koa, igerilekuetako irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituena.
- Eraikinetako instalazio termikoen Erregelamendua (RITE).

Eraikinen kudeaketa energetikoa:

- 25/2019 Dekretua, otsailaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtapenari eta ziurtapenaren kontrol-prozedurari eta erregistroari buruzkoa.

Legionelosi-planak:

- 487/2022 Errege Dekretua, ekainaren 21ekoa, legionelosia prebenitzeko eta kontrolatzeko osasun-baldintzak ezartzen dituena.

Laneko arriskuen prebentzioa:

- 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa